

#GrebaHezkuntzan #HezkuntzaEraiki

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2018 Urtarrila

irakaskuntza publikoa

Mobilizatzen jarraitzea inoiz baina garrantzitsuagoa!

5 greba egun eta mobilizazio ugariaren ondoren Hezkuntza Publikoko murrizketak, egungo egoera eta gure aldarrikapenak lehen mailan jartzea lortu dugu, Eusko Jaurilaritza ere mugitu arazi dugu, baina momentuz gure aldarrikapenatariko gutxi batzuk soilik eta oso modu partzialean besterik ez ditu negoziatu nahi

Cristina Uriartek dioenaren aurka, sindikatuon negoziazio borondatearen erakusle da negoziazio mahaia deitua dauden denboran inolako greba deialdirik ez egotea. Sindikatuok espreski ekidin dugu aurrematrikula garaian inolako greba deialdirik egitea. Eta azken hiruhileko greba deialdiak, ikasleei azterketek gehien eragiten dieten kolektiboetan (irakasle eta heziketa berezian) apirilera eta maiatzeko lehen astean daude deitua.

Jaurilaritzaren asmoa gure aldarrikapen nagusienei erantzun gabe edo oso modu eskasean erantzunda, greba eta mobilizazioak alde batera uztea da, ondoren eduki nagusirik gabeko negoziazio batean tratatzeko. Azken urte eta hilabeteetako esperientziak argi uzten digu, ordea, greba eta mobilizaziorik gabe ez dagoela egungo egoerari buelta eman eta gure aldarrikapenak lortzeko eta negoziatorako aukerarik. Negoziatzeko prest gaude, baina gure aldarrikapenak alde batera uzteko eta eduki nahikorik gabeko negoziazio hutsaletan sartzeko ez.

Sailburuaren hitzek gobernuak hezkuntza publikoaren beharrei eta sindikatuon aldarrikapenei heldu ez izana ezkatatu nahi dute eta greba eta mobilizazioa indargabetu eta kriminalizatzeko ahalegina dira.

- Urte hauetan eman den matrikulazio handitzeari aurre egiteko beharko liratekeen 2.000 lanpostuetatik apenas 100 proposatu ditu Jaurilaritzak.
- Behin-behinekotasun %6ra jaitsi eta plantillak egonkortzeko beharko liratekeen 9.900 lanpostu ingurutik 2.192 besterik ez ditu eskaini EPera eta lanpostuak egonkortzeko inolako bermerik gabe. Behin-behinekotasuna egungo tasa onartezinetan utzi (%31 irakasleetan, %34 Heziketa Berezian, %40 Haurreskoletan eta %64 Sukalde eta Garbiketari) eta milaka langile prekarizatu.
- Gelako ikasle ratioak jaisteko inolako proposamenik ez du egin. Soilik gelak guztiz beterik eta berriazko hezkuntza laguntza beharreko 5 ikaslelik gora dituzten Lehen Hezkuntzako geletan bi tutore ezartzeko proposamena luzatu dute. Neurri honek apenas sortzen dituelarik lanpostu gehiago eta oso ikastetxe gutxitan arintzen ditu lan-kargak.
- Hezkuntza Behar Berezia izendatzeko irizpideak eta plantilla eta baliabideak gehitzeko proposamenik ez du egin.
- Ordezkapenak lehen egunetik egiteko prest agertu da, baina soilik Lehen hezkuntzan. Bigarren Hezkuntzan 3. egunetik aurrera.
- Haurreskolen doakotasun bidean ez du inolako planteamendurik egin.
- Eros-ahalmena berreskuratzeko inolako asmorik ez du agertu.
- Bajak zigortzeari uzteko borondatek ere ez dago.
- 60 urtetik gora irakastordua 1/3 murrizteko prest agertu da, baita Haur eta Lehen Hezkuntzan 59 urterekin 2 irakastordu murrizteko ere, baina erretiroa errazteko neurri eta pizgarriak ez dute mahai gaineratu.
- Ikasleen euskalduntzeari begira ere ez dago aurrerapausorik.
- Eta LOMCE eta Heziberri bertan behera utzi edota hezkuntzaren merkantilizazioa ekiditeko neurriak kontuan hartu ere ez dituzte egin.

Hau honela, ELAk Eusko Jaurilaritza arduraz jokatzeko eskatzen dio eta Hezkuntza Publikoaren beharrei eta gure aldarrikapenei sendotasunez heltzea. ELAk negoziatorako prestasun osoa du, baina horretarako gure aldarrikapenei helduko dieten proposamen sendoak behar ditugu mahai gainean. Hau egon ezean, greba eta mobilizazioarekin jarraitzea beste biderik ez digu utziko.

Urtarrila eta otsaila						
Negoziazio mahaia eta mobilizazio ekimen ezberdinak (batzarrak, elkarretaratzeak, sozializazio eta salaketa ekimenak...)						
Martxoa						
		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	
Apirila						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						
Maiatza						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			
Ekaina						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	



- 2009tik 2018ra hezkuntza inbertsio publikoa Barne Produktu Gordinariaren %4,3 izatek %3,5 izatera pasa da, hau da, proportzionalki 596 milioi € galdu ditu. Eta modu berezian murriztu eta kaltetu du Hezkuntza Publikoa.
- Zenbaki absolutuetan 2018ko hezkuntza aurrekontua 2009koa baino 107 milioi € gutxiagokoa da.
- 30.000 ikasle gehiago matrikulatu dira eta apenas hazi dira plantillak.
- Gelako ikasle ratioa %9,1 hazi (gelako ia 2 ikasle gehiago).
- Ordezkapenak ez dira egiten edo astebetetik aurrera egiten dira.
- 10 langilelik 4 behin-behinekora da (Sukalde eta Garbiketari 10etik 6) eta ezegonkortasun arazo larriak daude ikastetxe eta plantilletan, milaka langilearen etorkizuna airean dagoelarik.
- Hezkuntza Behar Berezia izendatzeko irizpideak gogortu dira, Heziketa Berezia lan-kargak handitu dira eta ez dago langile nahikorik.
- Aniztasuna eta hezkuntza behar bereziak ongi lantzeko ez dugu baliabide nahikorik.
- Ikastetxeetako administrazio lanak eta proiektuak lantzeko plantilla eta errekurtsio nahikorik ez.
- Sukalde eta jangela edota garbiketa zerbitzuak %90ean pribatizaturik daude eta egun publikoa den %10a pribatizatzeko asmo irmoa dute.
- Zaharkituriko azpiegiturak berritzeko dotazioak guztiz eskasak dira.
- Ikasle eta familientzat lagungarri geroz eta eskasagoak dira.
- Haurreskoletako kuotak jasan ezinak dira (210€ hilean), plazak bete gabe daude eta matrikulazioa beherantz doa.
- %8-15 (17.300-41.183€) eros-ahalmen galera ezarri digute.
- Gaixotu eta baja hartzea zigortzen digute.
- Erretiroa atzeratu eta zaildu digute.
- Gure hezkuntza sistema txikitu eta Madrilen menpe jartzen duen LOMCE gure eskoletan barneratu dute.
- Euskalduntzean atzerapausoa den hirueko markoa bultzatu eta euskarazko murgiltze eredu baztertu du gobernuak.
- Hezkuntza enpresa eta patronalen zerbitzura jarri dute...



EAJ, PSE eta PPren ardura eta babesarekin murrizketa oso gogorak ezarri dizkigute Zerbitzu Publikoetan oro har eta Hezkuntza Publikoan zehazki. Eta egungo politika ekonomiko eta publikoekin murrizketa egoera hau betikotu nahi dute Zerbitzu Publikoak deskapitalizatuz.

Krisiaren aitzakia pean antolatutako eraso honen aurrean antolatu eta erantzuten hastea kosta zaigun arren, iazko ikasturtean eta aurtengoan modu paregabearen erantzun diegu Hezkuntza Publikoan ezartzen ari diren murrizketei eta pairatzen ari garen egoera gogorari. Urte luzeetan, egoera salatu eta elkarrizketa eta negoziatorako eskaria luzatu dugun arren, azken hilabeteetako mobilizazio eta grebak izan dira Eusko Jaurilaritza larritu eta mugitu arazterako behartu dutenak. Ez digute beste biderik utzi eta argi geratu da egoera aldatu eta gure aldarrikapenak lortu ahal izateko bide eraginkor bakarra dela.

Hala ere, jaurilaritzak bere jarrera inbibilista aldatu duen arren, gure aldarrikapenetako batzuei besterik ez die erantzun eta oso modu partzialean. Ondorioz, oraindik oso urrun daude, egungo egoera larriri buelta eman eta hezkuntza publikoaren oinarriko beharrei erantzuteko azken hilabete luzeetan plazaratu ditugun aldarrikapen eta eskaeretatik.

ELA, LAB eta STEILAS sindikatuon ustez, Eusko Jaurilaritza hezkuntza publikoak dituen premiei erantzuteko neurriak hartzea behartzeko ezinbestekoa da mobilizazioarekin jarraitzea.

Hezkuntza Publikoaren egoerari eta gure aldarrikapenei erantzuneko dien proposamenak mahai gainean jartzea behartzeko plazaratu dugun mobilizazio eta egutegiaren aurrean (ikus azken orrian), Hezkuntza Sailak, modu iraingarri eta arduragabearen, familiak bahitu eta greben bidez Hezkuntza Publikoa kaltetzen ari garela leporatu digu. Adierazpen horien atzean, ordea, sindikatuok eta azken hilabeteetako mobilizazio eta grebetara irten zareten milaka langilek lehen mailan jarri ditugun arazo, eztabaida eta aldarrikapenei ez heltzea beste helbururik ez du.

Hezkuntza Saiburuarentzat, antza, aurrez aipaturiko murrizketa hauek guztiek ez dute hezkuntza publikoa kaltetzen, langileez gain ez dituzte familiak eta ikasleak kaltetzen eta gobernuak ez du bertan arazorik ikusten. Dirudienez, arazoa egoera honi buelta eman lan-baldintzak hobetu eta hezkuntza publikorako inbertsio, plantilla eta baliabide gehiago aldarrikatzen dugunak gara.

(4. orrialdean jarraitzen du)

Sektore ezberdinen egoera, aldarrikapenak eta ondorioak negoziazio mahaien ostean

Taula honetan laburtzen dugu: 1.-Sektore bakoitzeko egoera murrizketen ondorioz eta egoerari buelta emateko ELAren oinarrizko aldarrikapenak.
2.-Iraileko eta abenduko negoziazio mahaietan Eusko Jaurlaritzak eginiko proposamenak.
3.-Proposamen horien baitan sektore bakoitzaren egoera nola geratuko litzatekeen.

Egoera eta sindikatuon aldarrikapenak	Jaurlitzaren proposamena	Nola geratuko litzateke egoera?
Irakasleak	-1.800 lanpostu ► +1.800 lanpostu. Ikasle/gela ratioak +%9,1 ► Ratioak -%10. Lan-kargak+++ ► Lan-kargak arindu.	-1.740 lanpostu Ikasle/gela ratioak +%9,1. Lan-kargak+++
	9.668 behin-behineko (%38) ► %6ra (8.439 lanpostu egonkortu). Ordezkapenak aste betera ► Ordezkapenak lehen egunetik kolektibo guztietan. Eros-ahalmena -%15 (-41.100€) ► Eros ahalmena berreskuratu. Bajak zigortuta ► Soldata osoa 1go egunetik.	7.768 behin-behineko (%30) 6.200 EPE falta, egonkortze bermearakin. Bigarren Hezk. ordezkapenak 3. egunetik. Eroste ahalmena -%15 (-41.100€). Bajak zigortuta.
Heziketa Berezia	Erretiro aurreratu eta pizgarriak ez ► Erretiro aurreratua (Seg. Soz.=Klase Pasiboak) eta pizgarriak. Hez. premia berezi irizpideak gogortu ► Irizpideak mailgutu eta zabaldu. Lan-kargak+++ ► Lanpostu ++; Lan-karga –	Erretiro aurreratu eta pizgarriak ez. Hez. Premia berezi irizpideak gogortuta Lan-kargak +++ 390 behin-behineko (%34) 300 EPE falta egonkortze bermearakin. 293 lanpostu Lanpostu Zerrendatik kanpo.
Sukalde eta Garbiketa	630 behin-behineko (%58) ► %6ra (565 lanpostu egonkortu). 343 lanpostu Lanpostu Zerrendatik kanpo.► 308 lanpostu Lanpostu Zerrendara Jardunaldia 37,5-45 ordu astean► 35 orduko asteko jardunaldia. Garraiorik ez. Gratu titulatu soldatak homologatu gabe / Hezitzaile soldatak -%20 (-6.120€) ► Gradu tituludunak maisu-maistekin homologatu. Hezitzaileak %95. Ordez. uda kobra. Gabe.► s 165 egun uda kobrantza. Eros-ahalmena -%12 (-22.900€) ► Eros ahalmena berreskuratu. Bajak zigortuta ► Soldata osoa 1go egunetik. Erretiro aurreratu eta pizgarriak ez ► Erretiro aurreratua eta pizgarriak.	Jardunaldia <37,5 astean / Garraioa. Hezitzaile soldatak -%20 (HH-LH irakasleekiko) Ordezkoak uda kobratu gabe Eros-ahalmena -%12 (-22.900€). Bajak zigortuta. Erretiro aurreratu eta pizgarriak ez.
	-70 lanpostu. ► +70 lanpostu. Lanpostu Zerrenda postuak jardunaldi partzialetan ► Lanpostu Zerrendan postu guztiak jardunaldi osoak (legea bete). Sukaldariak: 118 langile LZ kanpo ► 100 lanpostu Lanpostu Zerrendara Garbitzaileak: 72 langile LZ kano. ► 50 lanpostu Lanpostu Zerrendara 70 "lagun. kontra." postu estukturalietan (350 ordu) eta 1/2 edo < jardunaldiak ► 60 laguntza kontratu Lanpostu Zerrendan azaleratu. 1/2s jardunaldiko kontratuak. 612 behin-behineko (%64). ► %6ra (464 lanpostu egonkortu). Sukaldariak: 291 behin-behineko (%63). ► %6ra (201 lanpostu egonkortu). Garbitzaileak: 221 behin-behineko (%66). ► %6ra (263 lanpostu egonkortu). Lan-kargak+++ ► Lanpostu ++; Ratioak ↓; Kreditu +. Soldata <; Lan / ardura handiko funtzioak ► Funtzio aitortza: Sukaldariak 16. mailara eta garbitzaileak 13. mailara (+1.600€).	-70 lanpostu. Lanpostu Zerren. postu guztiak jardunaldi osoko bihurtuz legea betetzeko bermerik ez Sukaldariak: 118 langile LZ kanpo. Garbitzaileak: 72 langile LZ kanpo. 40 laguntza kontratu partzial eta 1/2 edo < jardunaldiak. 612 behin-behineko (%64). 464 EPE falta, egonkortze bermearakin. Sukaldariak: 291 behin-behineko (%63). 201 EPE falta, egonkortze bermearakin. Garbitzaileak: 221 behin-behineko (%66). 201 EPE falta, egonkortze bermearakin. Lan-kargak+++ Sukaldea: Arduara eta funtzio gehigarria eta menu berezien kopurua kontuan izan gabe. Soldata <; Funtzio eta kategoriak = Garbiketa: Hitzarmenak dioena bete, besterik ez eta m ³ kontuan izan gabe.
Hauteskolen	Prestakuntzarik ez; euskalduntze plaza oso urriak ► Prestakuntza eta euskalduntzea indartzea. Eros-ahalmena -%12 (18.800€) ► Eros ahalmena berreskuratu. Bajak zigortuta. ► Soldata osoa 1go egunetik. Erretiro aurreratu ez. ► Erretiro aurreratua. Pribatizazio arriskua. ► Lanpostuak azaleratu eta egonkortu / Sukaldeak mantendu / Eraikin berrietan sukalde eta langile publikoak. -150 lanpostu (matrikula ↓) ► Lanpostu + (doakotasuna, matrikula ↑) Ratio irizpide objektiborik ez (-8u lanpostu) ► Ratio irizpide objektiboak (+8u lanpostu) Lan kargak +++ ► Lanpostu ++; Lan-karga –	-150 lanpostu (matrikula). Ratio irizpide objektiborik ez (-80 lanpostu). Lan-kargak+++ Eros-ahalmena -%12 (-18.800€). Bajak zigortuta. Erretiro aurreratu ez. Pribatizazio arriskua. -150 lanpostu (matrikula). Ratio irizpide objektiborik ez (-80 lanpostu). Lan-kargak+++
	Ordezkapenak bertaratzeko orriarekin. ► Ordezkapenak lehen egunetik. 506 behin-behineko (%41) ► %6ra (424 lanpostu egonkortu). Administrazio Langile guztiak (24) behin-behinekoak ► guztiak finko. Haurreskola denetan 8 ordu zerbitzua ez. ► 8 ordu zerbitzua eta gutxienez 2 hezitzaile. Koordinazio kreditua murriztu eta koordinatzaile ordeek plusik ez. ► Koordinaziorako kreditua handitu (0-5 gela→erdia; 6-10→osoa; >10→1,5) eta koordinatzaile ordeei astetik aurrera plusa ordaindu. Matrikula 210€. ► Doakotasuna Eros-ahalmena -%8 (-17.200€). ► Eros ahalmena berreskuratu. Bajak zigortuta. ► Soldata osoa 1go egunetik. Erretiro aurreratu ez. ► Erretiro aurreratua eta pizgarriak.	482 behin-behineko (%40). 400 EPE falta, egonkortze bermearakin. Haurreskola guztietan 2 hezitzaile ziurtatu gabe. -0,5 koordinazio kreditua 5 gela bete eta 6. erdi beteta liberazio erdia. 7 gela beteta eta 8. erdi beteta liberazio osoa. Koordinatzaile ordeei koordinazio plusa 15 egun natural jarraian eginez gero.

#Grezkuentzakan